nize | **euskal eskola publikoa** | NAFARROAKO IKASTETXE PUBLIKOAK

ESKOLA ereDugarria · ESCUELA moDelo

ALMANDOTZEKO HERRI ESKOLA
AMAIURKO HERRI ESKOLA · Amaiur
EZKABA IP · Antsoain
ARANTZAKO ESKOLA · Arantza
ARBIZUKO HERRI ESKOLA · Arbizu
NAZABAL HLHIP · Areso
ARIZKUNEKO HERRI ESKOLA · Arizkun
ARRAIOTZEKO HERRI ESKOLA · Arraiotz
ATARGI EIP · Atarrabia
AURITZ IP · Auritz
AURIZBERRI IP · Aurizberri
AZPILKUETAKO HERRI ESKOLA
ALAITZ IP · Barrañain
RICARDO BAROJA IP · Bera
MENDIALDEA II · Berriozar
ARAXES IP · Betelu
ERMITABERRI IP · Burlata
SAN MIGUEL IKASTETXEA · Doneztebe
SAN FRANCISCO JAVIER · Elizondo
ERRATZUKO HERRI ESKOLA · Erratzu
SAN ESTEBAN IP · Erro
LANDAGAIN IP · Etxalar
SAN DONATO IP · Etxarri Aranatz
GARES IP · Gares
GARTZAINEKO HERRI ESKOLA · Gartzain
ANDRES NARBARTE XALTO IP · Goizueta
IGANTZIKO IP · Igantzi
AMAIUR IKASTOLA HLHIP · Iruñea
BERNART ETXEPARE IP · Iruñea
BUZTINTXURI IP · Iruñea
ELORRI IP · Iruñea
FRANTZISKO DEUNA HLHIP · Iruñea
HEGOALDE IKASTOLA IP · Iruñea
MENDIGOITI IP · Iruñea
PATXI LARRAINZAR IP · Iruñea
SANDUZELAI IP · Iruñea
IRURITAKO HERRI ESKOLA · Irurita
ATAKONDOA IKASTETXEA · Irurtzun
PULUNPA IP · Ituren
ARRANO BELTZA · Iturmendi
LUIS FUENTES IP · Lakuntza
IRURITA GOTZAINA · Larraintzar
ERLETA IP · Leitza
IBARBERRI ESKOLA · Lekunberri
IRAIN IP · Lesaka
REMONTIVAL IP · Lizarra
LUZAIDE IP · Luzaide
DOMINGO BADOS IP · Olazti
ORONOTZEKO HERRI ESKOLA · Oronoz
AUZALAR · Orkoien
ORREAGAKO AMA IP · Garralda
OTSAGABIKO ESKOLA · Otsagi
OTSONTA ESKOLA · Saldias
SARRIGUREN IP · Sarriguren
SUNBILLAKO ESKOLA · Sunbilla
VIRGEN BLANCA IKASTETXEA · Uharte
URDIAINGO HERRI ESKOLA · Urdiain
ZIGAKO HERRI ESKOLA · Ziga
ERRENIAGA IP · Zizur Nagusia
XABIER ZUBIRI IP · Zubiri
URDAZUBI - ZUGARRAMURDI HERRI ESKOLA

nize
Ikastetxe publikoak "D"
Ikastetxe elkarlanean 61 centros asociados
www.nize-d.com






# D eredua, sendotzen doan proiektua

## GURE ESKOLAK HURBILAK ETA KONPETENTEAK DIRA, ETA HIZKUNTZATAN ESPERIENTZIA HANDIA DAUKATE

*Testua eta irudiak* **NIZE**

Guk, gure hezkuntza proiektuan, D ereduan, erabat sinisten dugu. Urtez-urte hazten eta sendotzen ari den proiektua delako. Gure esperientzia luzea, eta bide luze horretan hasieratik oinarri izan ditugun baloreak direlako gure bermea: aniztasuna, elkartasuna, eleaniztasuna eta bikaintasuna; eta...beste asko ere, konfidantza, hurbiltasuna, kultura, prestakuntza...

Hori guztia adierazteko, aurten aukeratu dugun markan D hizkia da nagusi, jaun eta jabe. D hizkiak identifikatzen duelako, egun, ezerk baino hobeto, zein den gure eskola – gure hezkuntzaren eredua. Eta D hori ez da hizki soil bat. D eredua ongi identifikatzen duten hitzek osatzen dute gure marka berria. D ereduan errez aurkituko dituzuen hitzak: konfidantza, hurbiltasuna, umeak pozik, ikasle konpetenteak, eskola irekia, publikoa, kalitatezko hezkuntza. Gainera, D hizkia, gurea, irrifartsu dago, irribarre bat irudikatzen digu. Oztopo eta zailtasun guztien gainetik, gure ikasleek egunero ematen diguten irribarrea da hori. Gizartearen konfidantzak, matrikulazioaren hazkundeak eta euskaraz bizitzeak pizten digun irribarrea. Horregatik dugu lema berria: Eskola ereDugarria.

Gure mezua, laburbilduz:

1.- Hurbilak gara. Etxekoak, auzokoak, herrikoak eta hiriburukoak. Zure giroko eskola gara. Zure bizitzan txertatua dagoena. Herritik herrira egindakoa.

2.- Gurean ikasleak konpetenteak dira eta izanen dira, hiru hizkuntzatan. Elebitasun errealetik errazagoa da eleaniztasunerako bidea. Euskaratik, gaztelania eta ingelesa erabiltzera.

3.- Hizkuntzatan inork baino esperientzia handiagoa dugu. Hezkuntzako murgiltze eredua gurean sortu eta hazi da. Murgiltze ereduak 35 urte ditu Nafarroan eta, aurretik euskaldunak ez ziren milaka hiritar elebidun hezi ditugu.

Honexegatik guztiagatik diogu gure eredua, ereDugarria dela.